

Eskolarteko Nafarroako Txapelketa – 2018-03-24

Torneoko Behin-Betiko Oinarriak

1.- Antolaketa.

Nafarroako Xake Federakundearen gain dago, Paz de Ziganda Ikastolaren laguntzarekin.

Antolaketa eta epaile lanaren ardura **Nafarroako Xake Federakundeak** hartuko du.

<http://fnajedrez.com/>

Txapelketaren egoitza Atarrabiako **Paz de Ziganda Ikastola** izanen da.

<http://www.pazdezigandaikastola.net/>

2.- Parte hartzea eta izena emateko epeak.

Lehenengo Hezkuntzako irakaskuntza ematen duten ikastetxe, hezkuntza zentro eta abarren ordezkariak duen edozein talderi irekia dago Txapelketa.

Lau jokalariko taldeak izanen dira, gehi ordezkioak (gehienez hiru).

Indar zerrenda FIDE eloaren arabera egingen da, jokalariek baldin badute.

Erantsitako “Eskolartekoan izena emateko fitxa” Agiria erabilita egin behar da inskripzioa, gero info@fnajedrez.com helbideari mezua bidalita, **martxoaren 22ko 14:00ak baino lehen** (osteguna da).

Ikastetxeak ez daude mugatuta taldeak bidaltzeari dagokionez.. Derrigorrez erantzukizuna hartuko duen monitorea izanen dute ikastetxeek. Txapelketan taldeetako ordezkari moduan ere arituko dira monitoreak.

Txapelketaren formatoa dela eta (hezkuntzako izaera duten ekitaldi paraleloak izanen baitira), irakasle bat edo batzuk edota ikastetxeko Zuzendaritza Batzordeko jendea etortzea eskatzen da.

Ordezkatzen den ikastetxeko ikaslea izatea beharrezkoa da talde batean parte hartzeko, edo bestela aurreko bi denboraldietan ikasle izana izatea (orain ikasten den ikastetxeko talde batean parte hartzen ez badu beti ere).

Jokalarien jaiotegunak 2006. urtekoak izanen dira edo geroagoak.

2005ean jaiotako jokalariek onartzen dira, modu ez ohikoan, Lehenengo Hezkuntzan matrikulatuta baldin badaude. (Hau ez dago onartuta Espainiako Txapelketetan).

Inskripzioarekin batera, ikastetxeko Zuzendaritzaren identifikazio ziurtagiria atxikiko da eta “Datuak uzteko norbanakoaren fitxa” (parte hartzaile bakoitzaren aitak/amak/legezko ordezkariak sinatuta).

Talde parte hartzaile bakoitzaren inskripzio kuota 50 eurokoa da.

Diru sarrera egiteko bankuko kontua, Nafarroako Xake Federakundearen izenean:

Banco Sabadell ES04 0081 4363 09 0001031904. Bidali ordaindirua info@fnajedrez.com helbideari.

3.- Joko sistema eta egutegia.

Txapelketetarako FIDEren Arautegi Nagusia aplikatuko da.

Sistema suitzarraren bidez jokatu da, Xake Azkarreko 7 txandetan, programa informatikoa erabilita.

Lau tableroetan jokatu dute taldeek. Puntuazioa neurketako 2, 1 edo 0 izanen da. Ezberdinketako lehenengo sistema tablero guztietan izandako puntuazio osoa.

Partida osorako denbora 20 minutukoa izanen da, lehenengo jokalditik 10 segundo gehituta jokaldiko.

Ordu-tegiak:	1. txanda	10:00h.
	2. txanda	11:00h.
	3. txanda	12:00h.
	4. txanda	13:00h.
	5. txanda	16:00h.
	6. txanda	17:00h.
	7. txanda	18:00h.

4.- Informazio osagarria.

Aisialdiko ekitaldiak eginen dira jardunaldi osoan zehar, Paz de Ziganda Ikastolako instalazio bikainez baliatuta, Nafarroako Xake Federakundeko monitoreekin.

Aurkezpena (9:45h) agertzeko aski denboraz joatea eskatzen da. Bertan eguna atsegingarri egiteko izanen diren ekitaldien ordu-tegiak eta tokiak zehaztuko dira. <http://www.pazdezigandaikastola.net/eu/localizacion>

Ekitaldiak

- Piezapasako torneo azkarrak eginen dira, baita beste joko batzuk ere (jan-jan eta antzekoak).
- Julian Perezen eskutik mikrohitzaia. www.adadae.org webguneko sortzaile eta koordinatzailea da eta "Hezkuntzako Xakearen zazpi koloreak" programako ko-egilea. https://www.paraisoajedrecistico.com/uploads/9/8/0/5/98059300/03_recursos_ajedrez_-_los_7_colores_del_ajedrez_educativo_www.paraisoajedrecistico.com..pdf
- Alfredo Ruiz Nafarroako Xake Federakundeko lehendakariaren aldetik mikrohitzaia eta mikroeskolak.
- Nafarroako Xake Federakundeko monitoreen aldetik mikrohitzaia eta mikroeskolak.
- Problemen eta igarkizunen Lehiaketa.
- Pintura tematikoaren Lehiaketa: Xakea.
- Taldekako Gymkana.
- Tablero erraldoiaren gainean ipuin kontaketa eta antzespina.

Ogitartekoa edo antzekoa ekartzea gomendatzen da eta baita ere gosaltzeko garairako fruitaren bat (14-15h.)

15:30 eta 16:30 artean antolatzaileek txokolatada eskainiko dute.

Paz de ziganda Ikastolako gurasoek prestatutako etxeko sukaldaritzako luncha eskainiko da sari banaketa egiten den bitartean.

5.- Sariak: 19:00etan hasiko da sari banaketa.

- **Talde txapelduna:** Trofeoa eta ordezkarietarako eskubidea. Nafarroako ordezkari moduan joanen da Espainiako Txapelketara, monitore bat eta sei kirolarirekin, gastu guztiak ordainduta.
- **Txapeldunordea:** Trofeoa eta kirol material sorta.
- **Hirugarren sailkatua:** Trofeoa eta kirol material sorta.

Oroigarri moduan opari bat jasoko dute kirolari guztiek.

Hezkuntzako Xakeko liburu sorta bat jasoko du ikastetxe parte hartzaile bakoitzak.

400 eurotan baloratutako kirol-hezkuntzako material sorta zozkatuko da ikastetxe parte hartzaileen artean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, eskatu telefono honetan: 692 629 721

Adeitasunez, agur bero bat jaso ezazue.

Alfredo Ruiz
Julian Pérez

NXFko lehendakaria
NXFko monitoreen Batzordeko lehendakaria

Elkarlanean aritzeko:

